

Gutuna eta proiektuaren interesa

"Es raro vivir una historia sabiendo que será escrita de forma totalmente distinta. Que ya no seré más yo, que ya no seremos nosotros".

Salvador Puig Antich

Ezkaba mendiko San Cristobal kartzelako hobia hustean identifikatu ahal izan zuten lehen hilotza Andrés Gangoitirena izan zen, Gorlizko 23 urteko itsasgizonarena. Identifikatu ahal izan zituzten kartzelako apaizak gizon bakoitzaren heriotza-partea zeraman beirazko botila bat jarri zuelako, haien tibien artean. Gangoitirenak metalezko hariko tapoia zeukan, beste askorenak kortxozkoak ziren bitartean. Horiek ezin izan zituzten identifikatu. Albisteak ezagutu nuenean harrিতuta geratu nintzen, erakunde berdinean afiliatuak garelako, ideia berdinak ditugulako eta senideak garelako, egun berdinean ezagutu nuen dena, hezurak atera zituztenean, eta momentu horretarako ni banengoen proiektu honetan murgildua, eta memoria historikoari buruz kontzientzia hartuta.



Bidean aurkitu ditudan istorioetako bat da hori, nahiz eta oso berezi edo garrantzitsua ez izan, proiektuarekin jarraitzera animatu nau. Honetaz aparte pilo bat gertaera miresgarriekin topatu egin naiz, atseginez bildu ahal izan ditudan lekukotasun ugarietz gain, hala nola Almodovar del Campoko alkatearena: fusilamendu-pelotoi bateko kide baten gutun anonimoa jaso zuen, herriko hobia non zegoen esanez, zeina ordura arte ezezaguna baitzen; edo Aranzadi Fundazioari egindako elkarrizketak, Frantziako zelaietan utzitako erbesteratuei egindako elkarrizketak, hala nola Azucena Rubio edo Juan Mariné , Gursen edo Argelésen egon zirenak, Helia edo Alicia Gonzalezren lekukotasunak, azken itsasontzi horretako bidaiaririk gazteenak, topaketa labur bat Servini epailearekin, liburuetatik eta prentsa artikuluetatik bildutako materiala, eta bilerak idazleekin, historialariek eta memoria historikoaren elkarteekin.

Hiru urtez lan egin dudana proiektu hau oso pertsonala da, sortu ditudan gainerako testu eta piezen oso bestelakoa, arestikoetan baino kezka askoz sakonago batetik sortu delako, eta **premiatik** ere bai. **Ikerketa neketsu** baten ostean eta obran sartu nahi ditudan gaiak erabaki eta mugatu ondoren, azkenean prozesua hasi dezakedan puntuan nago.


Proiektua aste pare batean munta nezakeen ideia sinple bezala hasi zen, antzezlan laburra, zenbait taldek eta erakundek egiten zidaten eskaerari erantzuteko, non nire beste antzezlanek ez baitzuten tokirik, askoz azalekoagoak zirelako. Erbesterantz atera zen azken itsasontzian oinarritutako ideia zen hasieran... baina noski, istorioa hazten zihoan, istorio gehiago ezagutzen nuen, informazio gehiago aurkitu eta batez ere lehen pertsonan kontaktzen zizkidaten eta alde batera utzi ezin nituen lekukotasun gehiago. Eta proiektua hazi egin zen halaberrez.

Momentu honetan, DSS2016en **Antzerkigintza berrien proiektuan hautatua** izan denez nire lana, antzezlanaren idazketarekin nabil, Patxo Tellería eta Mireia Gabilondo tutore bezala ditudalarik, beraz, horregaitik momentu honetan ez nago behin behineko testua erakuztekotan.

Hiru urteotan oharrak hartu ditut nire koadernoan, bizirik irtendakoekin eta senideekin elkarrizketatu naiz, nire eskuetatik igarotako guztia irakurri dut, eta hainbeste material bildu ondoren uste dut gaiari duintasuna emango dioten obra sortu behar dela, orain arte inork idatzi ez duen antzezkan bat, **emakume baten ikuspegitik, senide eta militantea dena; eta emakumeen lekukotasunekin, ahaztuen artean ahaztuenak izan baitira haiek**. Hainbeste pertsonak ezagutzen ez duten egungo historiari buruz kontzientziatu eta hura argituko duen obra bat. Espainiar estatua pertsona desagertu gehien duen munduko bigarren tokia da, Kanbodiaren atzetik, eta hori ez da latzena, latzena erakunde batzuek trantsizio baten eta demokraziako 40 urteren ondoren jartzen dituzten legezko oztopoak dira. Jarrera hain da lotsagarria ezen Argentinara joan behar izan baitugu demanda jartzen, hemen ez dagoelako kereila onartzen duen epailerik. Lan honek kontzientziara ekarri nahi du hau atzo gertatu zela, oraindik erbesteratuak daudela, lurperatuak daudela, ainguratuta, oraindik 20 urtekoak direla, ez 90ekoak, aurkituak izatearen zain galduta jarraitzen dutela. **Egia, justizia eta ordaina** merezi dituzte, hau nire harea aletxo da.


Osasuna.

Olatz Gorrotxategi Gangoiti



Stanbrook ikatz ontzia gerra bukatu aurretik baino 2 egun lehenago, Oraneko kostaldera zijoala. 80 lagunerako lekua zuen ontziak 300 bidaiari eraman zituen.

43°13'44"N



Hezigaitzen oroimenez.

Lurra arina izan bekizue

SINOPSISIA

43°13'44"N antzezlanak erregimen frankistak hilda eta inoiz etxera itzuli ez ziren pertsona erbesteratuen bilaketa kontatzen du. Obra honek **biktima guztien** bilaketa deskribatu

nahi du, bidaia horretan uneoro izena eta aurpegia aldatzen dituen pertsona bakarra erakutsita. Hala, ez zaio biktima bakar bati heldu nahi, faxismoak errepresaliatu eta hildako guztiei baizik, 14 urteko Maravillas Lambertoren hilketatik hasi (Nafarroan 1936an akabatua) eta Puig Antichenera arte (1974an garrotez hil zuten azkena), bereziki azpimarratuz **oraindik desagertuta** dauden izenik gabeko 150.000 hildakoak, edo hegoaldeko mendietan oraindik dauden milaka euskaldunen gorpuak.

43°13'44''N ongi etorri festa bat da, orain direla 76 urtez itxaron dugun pertsona batentzako festa. Performer eta publikoan jai giroan daude, txano, arropa, gonbidapen, kartel, jan eta edanetan igartzen da. Berandu datorrela dirudi... baina zer dira ordu gutxi batzuk bizitza osoa itxaroten egon direnentzat? Jokalariak momentu honetan momentu honetararte egin duen bilaketaren erretrospektiba bat egingo du eskenatokian.

Protagonistak (antzezlaneko eme jokalaria) biktimak egun dauden tokiei buruzko **ikerketari** ekingo dio, zenbait tresna eta egiazko desagerpenei buruzko agiriak erabiliz, hasiera batean bilatutako pertsona zein arekatan dagoen aurkitu nahian. Hasteko istorio anonimo bat aukeratu ondoren, laguntzeko hausazko pertsona bat (agian egiazko agiri batetik aterea, hala nola senideek laguntza eske egindako grabaketetatik, edo senideek biktima ezagut lezakeen eta bizirik atera zenen bati informazioa eskatzeko erabilitako foroetatik), lekukoekin hitz egingo du azken aldiz noiz ikusi zuten jakiteko, objektu galduetara deituko du biktimaren maletaz galdetzeko, haien bizitzetako argazkiak interpretatuko ditu, gerra kideei galdetuko die, bidaiari zerrendan izena egoteagatik irten behar zukeen itsasontziko bidaiariei edo oraindik

antzezlanean zehazteke dauden beste ekintza edo agiri batzuk, egiazkoak, berriz diot, erabiliko ditu

Jokalariak bilatzen duen pertsona horren izena ekintza bakoitzean aldatzen da, arestian aipatu dudan efektua lortzeko hala, desagertu guztiei buruz mintzatzea, baina banakako tratamendua emanaz, merezi duten errespetua eta garrantzia emanaz bakoitzari, ez bait dira talde bat, pertsona indibidualak baizik. Biktimei aurrez aurre hitz eginik, **bitakora** kaieraren edo bidaiako **postalaren** formaz sortutako **intimitatetik**, protagonista egun desagertuta jarraitzen duten, edo erbestetik inoiz itzultzerik izan ez zuten pertsona horien guztien azken zoria aurkitzen saiatuko da, **jolastuz, amets eginez, agiriak distortsionatuz** eta benetan izan zuten patua baino askoz atsegina den bizitza asmatuz haientzat. Halaber, aktoreak albiste onak aurkitzeko duen irrika dela eta, jokoak eta harremanak asmatuko ditu **ikusleekin** pertsona horiek guztiak salbatzeko..., hala nola bere gorputzarekin edo ikusleenekin ontziola bat eraikitzea, paperezko ontziak egin eta Alacanteko portura bidaltzea (handik irten zen Stanbrook, 3.000 bidaiari baino gehiago zeramala erbesterantz nabigatu zen azken itsasontzia, lehorrean italiar armadaren eskuetan 15.000 eta 30.000 lagun artean utzirik), edo 1937an desagertu eta hilda dagoen bati postalak bidaltzea.

Lortu nahi nukeen efektua **lehen pertsona**rena da, egiatan biktime guztiak biltzen dituen irudi horrekiko **hurbiltasuna**. Eta horretarako interesgarria deritzot aurrerago aipatuko dudan egiazko agiria vs agiri manipulatuaren jokoa, protagonista humanizatuko duena.

Paraleloki, ikerketak aurrera egin, eta guztiak batera den pertsona horren arrastoari jarraitu ahala, **eszenatokian mapa geografiko bat sortuko** da bilaketan erabilitako elementuak erabiliz. Hala, oso pixkanaka eta ikusleek hasiera batean susmatu barik, zorua eta eszenatokiko beste osagai batzuk, hala nola atzeko oihala edo ikusleak, mapa bat taxutuko duten objektuen eta eszenen jasotzaileak izango dira. Osagaiak pixkanaka ekor edo zorutik mugi litezke, forma emanaz. Baliabide horrek, dimentsioetako mapa sortzeak, haria sortzen lagunduko du.

Ezin dugu sinopsitik kanpo utzi proiektuaren **alderdi objektiboa**, bilaketaren istoriotik kanpo egiazko **datuak** , **benetako irudiak** eta bideoak agertzea; ikusle batzuek informazio hori ezagutu arren, gehienentzat datu ezezagunak dira eta idatzi nahi dudan istorioa testuinguruan jartzen lagunduko dute, hala nola zifrak (150.000 desagertu gaur egun, 550.000 Frantziara erbesteratuta, 15.000 Algeriara erbesteratuta, 25.000 Mexikora erbesteratuta, 30.000 haur seniderik gabe erbesteratuta, 30.000 Alemaniako lan-esparruetara bidalita eta 10.000 deuseztatze-esparruetara...), lehen nodoaren krudeltasuna, atzeko eta egungo nazioarteko pasibotasuna edo espainiar erakundeek gorpuak hobietatik ateratzeari jarritako oztopoak. Datu eta ekintza horiek antzezlanari batasuna eman eta ikusleak egoeran jartzeko balioko dute.

Dramaturgia lana funtsezkoa da antzezlan honetan; izan ere, gertakarien **narratzailea** eta, **agirien** (gutuna, postala, egunerokoa, argazkia, proiektatutako datua...)oinarria da istorio enpastatua sortuz. Dramaturgia funtsezkoa da jokalariaren ahotz egunerokoan ere. Ikerketa eszeniko sakona behar bai da orain mahaian dauden material guztiak konkordantzian jartzeko.

Antzezlanean gertatzen denetik harago, eta kontatuko diren eta idazteke dauden istorio zehatzetatik harago, antzezlanea **memoria historikoaren legearen aplikazioa aldarrikatu**ko du, 1936 eta 1977 artean egindako gizateriaren aurkako krimen horientzako egia, justizia eta ordaina eskatuz, oraindik kondenatuak eta konpondu barik baitaude.

Bideetan gorputzean bala bat sartuta jarraitzen dutenen memoria ohoratu nahi du lanak; izan ere, haiengandik ez dira igaro batzuk ezabatzen eta ahazten tematzen diren 80 urte horiek. Egun konpontzen dugun historiak mundu osoan **oraindik burutzen diren krimenen kontzientzia** izateko balioko digu.





Argelés sur mer errefuxiatu esparrua

Tratamendu dramaturgikoa

Mapa

Lehen azaldu dudanez, eskenatokian sortzen den mapa geografikoa eszena osoari **koherentzia eta batasuna** emango dion elementuetako bat da, bestalde, oso

baliabide poetikoa izango denez, ikerketa sakona eta hainbat froga behar ditu modu onean garatzeko.

Mapan erabiliko ditudan elementuan honakoak izan daitezke: Botilak Nafarroan, Ezkabako botilen hilerrigatik, lurra hobi inguruetan edo are penintsula osoan, harea Frantzia eta Algeriako kostaldean (hondartza hesitu batean inprobisatu eta 100.000 lagun sartu zituzten Argelés sur Merreko errefuxiatu esparruagatik, edo basamortuan eraiki zen Orángo esparruagatik), are Ondarroako Saturrarango kartzelan, hondartzan zegoela . Gatza edo karea Europan, Gurs edo Mauthausengo kontzentrazio-esparruei erreferentzia eginez, horretara 1.500 eta 4.000 errepublikar eraman baitzituzten. Banderatxoak Mexikoko kostaldeari jarraiki, herriak (eta Cárdenasek) errefuxiatuei egin zien harreraren omenez. Ikusleek egindako itsasontzitxoak Alacanteko portuan utzi. Klarionaz, elikagaiez, hala nola arrozez edo ogi apurrez, egindako ibilbideak, ozeanoan zeharreko bidaiak adieraziz, bilaketa eta etxerako itzulera sinbolizatzen, indusketa arkeologikoetan erabilitako sokak, portuen egiazko argazkiak, geroago manipulatu eta eztituko direnak, antzezlanaren amai aldera herri bakoitzean idatzitako zifrak, eta oraindik erabakitzeke dauden beste asko, izan ere, jarri berri ditudan adibideak zirriborroak baino ez dira eta azkenean gerta daiteke mapa osagai bakar bat erabiliz marraztea.

Beste aukera bat, festan topatu ditzakegun baliabideekin soilik mapa osatzea da. Azukrea, banderatxoak edo paperezko ontziak egitea, besteak beste. Honek **lanaren estetika bateratuko du**

Argazki narratua

Argazki estetika, erretratu, kazetaritza fitxategiko argazki edo postal gisa, da **antzezlanaren eta haren testuaren oinarria**. Narrazioa elkarrizketen, albisteen, telefono deien eta aurkitutako eskutitz eta postalen deskribapenaren bidez egingo da eta, beraz, **dena lotu eta paraleloki hari eusteko fikziozko istorioa** sortzeko lana nekeza eta zaila da.

Hau hurrengo atalari, agiriei ikerketari dagokionez izango duten trataerari zuzenean lotuta dago. Baina puntu horretara igaro aurretik, nire koadernoan dauzkadan adibide batzuk eta proiektu honetarako pentsatu ditudan joko batzuk jarri nahi nituzke, non antzerkigintza funtsezkoa den.

Istorioko une bat imajinatzen dut zeinean protagonista (jokalaria), bilatzen duen pertsona horrekin (desagertuarekin) izan duen une-faltari buruz mintzatzen duen; garaiko, antzinako eskalako argazki batean sartuz, elkarrekin baleude bezala, argazkian agertzen den beste pertsona bat ordezkatzuz ere eta arroparen koloreak inhibitzen dituen argiztatzea baliatuz (zuri-beltza efektua) elkarrekin galdu duten guztiaz hitz egiten dio, egoterik izan ez duten haren bizitzako une guztiez, desagertutako pertsona horrek jokalariaren bizitzaz ezagutu ez duen guztiaz.

Hari horri jarraituz, desagertu baten egiazko argazki album familiarren proiektzioa imajinatzen dut; aktoreak argazkien atzean dagoen benetako historia zein den azaltzen du (Aititeren jaunartzea, Aitite eta bere anai-arrebak erromerian) eta, amaiera aldera, zuriz dauden diapositibak, inoiz egin ez diren argazkiak, inoiz gertatu ez zen bizitza komun batez mintzatzen direnak, edo inoiz gertatu ez diren amaiera zoriontsuko

istorioez, aktoreak narratuta (Aitite ta biok h ospitalean, jaio egin nintzen egunean, adb.).

Beste joko bat, ikerketa eta jokua ezinbesteko duena, desagertuen aurpegiaren aurkezpena da. Aurkezpen horretan Susana Blascoren (www.instagram.com/descalza) laguntzaz lan egingo dut. Artista argazkilaria da eta memoriari buruz lan egiten du, material birziklatuak erabiliz. Jatorrizko argazkiekin hasiko gara eta eszenan manipulatuko ditugu, pertsonaia horiek Enzo Cormannen " Deitzen naiz" antzezlanean inspiratutako testua erabiliz. Anonimoen zerrenda bat euren berezitasunekin, eta bertan nazioarteko brigadistak sartu nahi nituzke.

Jokalariak pertsona desagertu horri bizitzan bidalitako postal joko bat ere imajinatzen dut; testua zehazteke dago oraindik, antolatu eta itxi gabe dauzkadan beste gauza batzuen artean. Adibide sinple bat erantsi dut material gehigarriaren atalean.

Gogorarazi nahi dut antzezlanaren azken forma eta nagusitzen dena falta den pertsona horren bilaketa dela, aztarnaz aztarna, agian adibide horien eta beste batzuen bidez.



Antihéroes. Susana Blasco

Dokumentu antzerkia: Egiazko agiriak vs manipulatuak

Ezinbestekoa deritzot antzezlan honetan **agiria** erabiltzeari, lehenik egiazko historia izanik **ezin delako landu egiazkoa ez den beste ikuspuntu** batetik, ezta pertsonaiaren fikziotik edo ohiko antzerkitik jorratu. Egiazko zerbait aldarrikatu nahi badugu, ikusleei gezurra esatea, asmatutako baliabide poetiko edo dramatikoagoak erabiliz, antzezlanaren edertasuna lehenetsiz, lizuna litzateke.

Nire intentzioa **dokumentu antzerkia, antzerki politikoa edo zapalduen antzerkian** ematen diren kontzeptu ezberdinak praktikara eramatea da, lanaren momentu batzuk **irriti antzerki** moduan imajinatzen ditut halaber. Honek **lanaren estiloa markatuko** du. Beti interesatu egin zaizkidan eszena lengoia ezberdin hauentzat (eta landu ezin izan ditudanak), dokumentua, **agiria, funtsezkoa** da.

Biktimen bila egindako bidaia hori marrazteko darabiltzadan egiazko agiriei ikerketa neketsu eta grinatsu batean dute sorburua. Honakoak dira bidaia gidatzeko erabili nahi nituzke agirietako batzuk: Erbestera irten ziren itsasontziko bidaiarien jatorrizko zerrendak, arestian aipatu dudan Stanbrook itsasontzia barne. Stanbrookeko kapitain Archibald Dicksonen alaben adierazpenak. Faxismoa garaitzean itsasoratu ziren itsasontzietako bidaiariei egindako elkarrizketa, errefuxiatu-esparruetan sartutako erbesteratuen adierazpenak. Gauza bera kontzentrazio-esparruetan. Nazioarteko brigadisten jatorrizko eskutitzak, erbestetik bidalitako eskutitzak, hildakoen, desagertuen eta erbesteratuen datu biografiko frogatuak. Heriotza-parteak, Argentinan faxismoaren krimenei jarritako kereilari buruzko materiala, desagertuen eta erbesteratuen argazkiak, garaiko nazioarteko prentsa ebakinak, beste material batzuen artean.


Antzezlanean egiazkoa ez den zati bat badago, ikusleen aurrean agiriak manipulatu dituen jokalarari dagokio; berak asmatzen duen amaiera irekiko istorioa sinesten jolasten da, eta ikusleek istorioa eta egiazko agiriak ezagutu eta bereiziko dituzte. Agiri manipulatu horiek, esaterako, arestiko atalean aipatu ditudan guztiak dira: Argazki manipulatuak, gezurretan deskribatutako argazkiak, ez diren argazkiak, inoiz iritsi ez zitzaizkigun edo inoiz bidali ez genituen postalak. Eta beste batzuk, hala nola lehen pertsonako testuak, besteak beste. Testu adibide bat erantsi dut (landu barik dago oraindik); hori irakurrita, espero dut ulertzea fikzionatutako zatia ikuslearentzako jolas argia izango dela, eta ez direla nahastuko faltari eta minari buruz mintzatzen diren egiazko agiriak, eta itxaropenari eta autoengainuari buruz mintzatuko diren agiri manipulatuak.


Neu ere portuan nagoela imajinatzen dut.STOP. Ez nago goibel. STOP. Itsasontzian urruntzen zara. Bizi osoan maiteko zaitudala oihukatzen dizut. STOP. Algerrera iristen zara eta esaten dituzten astakeria guztiak gezurra dira, ez transahararra eraikitzen duen erbestaturik, ez goseterik, ez miseriarik. Baina han bero handiegia egiten du zuretzat. STOP. Beste itsasontzi bat hartu duzu. Atlantikoa zeharkatzen ari zara eta nik zuri oihu egiten jarraitzen dut. Mexikora iritsi eta Cárdenasek berak egiten dizu harrera portuan, Sinaia ontzitik edo Ipanematik irtetean. Frida Kahloren lagun egin eta tea hartzen duzue elkarrekin... edo hori esaten didazu zure gutunetan, egiatan tekila delako. (Ikusleei helaraz lekieke aipatzen den eskutitz, argazki edo postal horinon Fridarekin tea hartzen dagoela esaten duen). Zuk bakailaoa bizkaitar erara egiten irakasten diozu Fridari, bacalao a la vizcaína, zure herrian tipikoa baita eta oso ondo egiten baitiozu, diotsozu... eta nitaz hainbeste hitz egiten diozu... ezen aspertu egiten baituzu. Egiatan

gezurra da, inbidia dit, ni hainbeste maite izatea jasanezina delako. Inbidia digu. Orduan Cantinflas iristen da, eta Mario esateko eskatzen dizu, konfiantza dagoelako, diotsu. Hain zaitu gustuko... izan ere hain zara zoragarria ezen urte osoan lortu nahi baitzaitu, edozein emakume izan dezake baina zu nahi zaitu, eta ni maitatzen ere hasi da, herabe hasieran, eta grinaz gero. Inoiz izan ez zuen biloba naiz, hainbeste entzun dizu nitaz berbetan... aitite ez du horrek gogaitzen, ez du batere gogaitzen zuk zeure bizitza egiteak, hain zara zoragarria ezen saihestezina baita, eta maite zaitu, eta gainera beti gustatu zaizkio Cantinflasen pelikulak. Diego Riverak eta Chavelak zurekin afaldu nahi dute, baina zuk ez daukazu astirik. Ernestok etengabe bilatzen zaitu, saihestu egiten duzu zuk, hori ez da zure iraultza, zuk ez duzu diktaduretan sinesten, ezta herriaren horretan ere. Ez jainkorik, ez jaberik ez mugarik, esan diozu Cheri. Eta ni oso harro nago zutaz... zelan ausartu zara!

Eta 40 urte pasa dira.

Zelan egongo zara zu areka batean...





Puzzlea

Antezlan honetan ezinbestekoa deritzot **performance**tik lan egitea, eta ez antzerki lanetik, **jokalaritik** lan egitea eta **ez pertsonaiatik**. Alde batetik sepia koloreko obra ez sortzeko, eta gori jarraitzen duen gaia gaurkotasunera are gehiago hurbildu ahal izateko. Niretzat funtsezkoa da duela 80 urte kokatutako hasiera eta bukaera duen istorio hutsa ez izatea, garaiko pelikula bat ez sortzea, **gaurkotasunera ekartzea** baizik, zerbait egin eta luzaroegi iraun duen zerbait konpondu ahal izateko itzaropena erakutsiz. Iraganetik orainerako trantsizio osoa egitea...

... Eta, bestalde, izugarri gustatzen zaidalako **puzzle itxurako** zerbait sortzeko ideia, non informazioa pixkanaka **dosifikatuko** den, eta mapa, metaforiko eta fisikoki, ekintza eta informazio bakoitzaren ondoren hobeto taxutuko den.

Atmosfera eta dramaturgia

Bidaia **inbentarioko**, post mortem bildutako informazioaren inbentarioko atmosfera funtsezko oinarria da antzezlanean. Inbentario atsegin eta **itxaropentsua**. **Testu ez**tia sortu nahi nuke, agiri manipulatuaren laguntzaz, alde batetik **errealitatearen eta fikzioaren arteko kontrastea** sortuz eta, bestetik, ikuslearengan baikortasuna eraginez, eta ez porrota.

Halaber, dramaturgian inflexio unea finkatuta ez badago ere, eta istorioaren barruan gatazkarik edo korapilorik derrigorrez behar ez badu ere (bilaketa, berez, aurkezpena, korapiloa eta amaiera baita), funtsezkoa deritzot desberdin bihurtzen duen **dramaturgia jokoa sortzea**, ikuslea adi-adi egon dadin. Puzzle formak azken hori errazten du, baina horri laguntzeko ezustekoa, misterioa, informazioaren dosifikazioa ere erabili nahi nituzke, **obraren gertabidea lasterragotu** barik eta bila nabilen pertsonari buruzko misterioa sortuz... joan den asteartean desagertutako norbait den, edo zuzenean niri lotutako norbait den, adibidez.

Bidaia

Bidaia eta **haren osagai guztiak** dira antzezlan osoari batasuna emango dioten gaia, forma estetikoan ez ezik, **baita forman** eta kontzeptuan ere.

Itsasoko gaiak, zenbait material argitzen dituzten itsasargiak, paperezko itsasontziekin egindako jokoak, postalak, argazkiak, morse lengoia, desagertuen maletak, obran zehar pixkanaka sortzen eta agertzen den mapamundia... eta batez ere telegrama, mezudun botila, eskutitz... gisa egindako testu erreferentziak eta semantika testuari eta obrari batasuna emango dioten osagaiak dira. Bidaian. Bila.

Horren adibidea litzateke ikusle bakoitzari antzezlanaren aurretik emango zaion kartazala, zuri-beltzeko erretratua duen kartazala, izena, data eta jaiotze tokia idatzita. Pertsona horietako bakoitzaren izena obrako testu une batean agertuko litzateke, "deitzen naiz" erretratatuen aurkezpenean narratutako, esandako testukoan edo inprimatutako testukoan, bidaiari zerrenda gisa, esaterako. Azkenean dagokien mapako tokian utzi beharko dituzte, euren etxeetan.

Edo agian ikusleek idatz ditzaketen postalak eta, zigilua eta helbidea emanik, erakunde arduradunei, edo Carmen Martínez Bordiúri helaraz ahal izatea... ;)

Edo inskripzio bat duen paperezko ontzi txiki baten ideia, zeina antzezlaneko ilunetan mugitzen baita, hanka batetik bestera, eta hankaraino iristean pertsona baten tamainako itsasontzi bihurtuko baita, non antzezlaneko azken testua irakurriko baita.

Festa. Prozesuan dagoen proiektua

Azken egunetan hari dramaturgikoa bilatzen ari garen pertsonarentzako (edo bere hezurrentzako) festa sorpresa bat prestatzen egotea izan daitekeela pentsatzen egon naiz. Guztiok festa txanotxoekin, ongi etorri kartela eta janariarekin. Urtebetetze klasiko bat. Eta heltzen den bitartean bilaketari buruz hitz egiten dugu, egin dugun bidai hori kontatzen dugu, erakusten dugu. Mami berdinarekin baina forma guztiz kontrakoarekin. Aitzakia da aldatzen dena, gaia (gogorra) eta formaren (gozoa) hartean kontraste oso polita sortuz.

Azken egunetan eduki dudana zalantza da hau, eta gero eta argiago daukat oso ondo funtzionatu dezakeela, hori dela eta sinopsian sartu dut azkeneko momentuan.